


Enpresa handienek izan zuten kapital gehien 2009. urtean

Mikroenpresek enpresa-ondarearen % 42,2 izan zuten eta enplegu osoaren % 43,6 okupatu zuten

Eustaten datuen arabera, 250 langiletik gorako enpresek izan zuten kapital gehien 2009. urtean, % 12,1eko okupazioarekin urte horretako ekonomiaren aktibo osoaren % 21,9 hartu baitzuten. Gainerakoek, langileen % 87,9arekin, aktiboen % 78,1 izan zuten. Geruza txikiena osatzen duten langile 1 eta 9 langile arteko enpresek enpresa-ondarearen % 42,2 eta langileen % 43,6 izan zuten.

Zenbatespenen arabera, gainera, Euskal AEko enpresa ez-finantzario guztiek 2009. urtean 199.183 milioi euroko ondarea izan zuten eta kopuru horren % 43,2 zerbitzuen sektorearena izan zen. Gainerako aktiboak honela banatu ziren: % 40,4 industri sektorean eta % 16,4 eraikuntza sektorean.

Euskal AEko enpresa ez-finantzarioen aktiboa eta pasiboa. 2009



Iturria: Eustat. Enpresa ez-finantzarioen ondare-kontuak (EEFOK).

Partidek **balantzearen aktiboan** izan duten garrantzia aztertzean hurrengo datuak lortu dira: aktibo ez-arrunta guztirakoaren % 54,7 izan zen eta aktibo arrunta, aldiz, % 45,3. Aktibo ez-arrunta osatzen duten epigrafeen barruan garrantzitsuena ibilgetu materiala izan zen, % 43,0koa izan baitzen; ondoren, taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan egindako inbertsioak azpimarratu behar dira, % 36,1arekin. Aktibo

arruntaren barruan, gainera, bi partida nabarmendu behar dira: merkataritza-zordunak (guztirakoaren % 35,1arekin) eta izakinak (% 31,2arekin).

Balantzearen ondare garbian eta pasiboan honako parte-hartzeak eman ziren: ondare garbia (guztirakoaren % 42,0), pasibo arrunta (% 31,0) eta pasibo ez-arrunta (% 27,0). Ondare garbiaren barruan funts propioak azpimarratu behar dira, eta bertan bi partida garrantzitsu: erreserbak (% 49,9) eta kapitala (% 32,5).

Ez-finantzazko enpresen ondare-multzo nagusiak Euskal AE. 2009 (milaka €).

	EUSKAL AE	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Aktibo ez-mugikorra	109.015.663	13.627.434	64.778.178	30.610.051
Aktibo mugikorra	90.167.647	14.822.734	46.786.809	28.558.104
- Izakinak	28.164.153	5.401.631	13.461.997	9.300.525
- Erabilgarria	10.937.052	1.453.546	5.960.808	3.522.698
- Bihurgarria	51.066.442	7.967.557	27.364.004	15.734.881
Aktiboa guztira	199.183.310	28.450.168	111.564.987	59.168.155
Ondare garbia	83.650.909	11.421.524	47.088.956	25.140.429
Pasibo ez-mugikorra	53.815.908	6.863.235	32.028.047	14.924.626
Pasibo mugikorra	61.716.493	10.165.409	32.447.984	19.103.100
Pasiboa guztira	199.183.310	28.450.168	111.564.987	59.168.155
Laneko kapitala	28.451.154	4.657.325	14.338.825	9.455.004

Iturria: Eustat. Ez-finantzazko enpresen ondare-kontuak

Aktiboa sektoreka banatzean ikusi da industriak garrantzia izan duela Euskal AEko ekonomian. Horrela, aktiboen % 40,3 industri sektorekoa izan da, sektore honek enpleguaren % 28,1 izan baitzuen; hala ere, merkatuko zerbitzuek izan zuten ondare-ehuneko handiena (% 43,2) eta enpleguaren % 60,1. Azkenik, eraikuntza sektoreak aktiboaren % 16,5 eta enpleguaren % 11,8 izan zuen.

Eraikuntza sektoreko **enpresen pasiboek izan zuten osaeran** aldeak eman ziren, industri sektorekoekin eta merkatuko zerbitzuekin alderatuta. Eraikuntza sektorean % 39,2ko pasibo arrunta izan zen, epe laburrari lotuta, baina industri sektorean % 29,6koa izan zen eta merkatuko zerbitzuen sektorean % 29,2koa.

Enpresak hirugarrenen aurrean duen finantza-menpekotasuna neurtzen duen **finantza-autonomiaren** ratioa (ondare garbiaren eta gainerako pasiboaren arteko erlazioa dela kontuan hartuta) % 72,4koa izan zen. Autonomia hori txikiagoa izan zen eraikuntza sektorean, % 46,3ko ratioa lortu baitzuen, baina handiagoa izan zen industrian eta zerbitzuetan, % 72,9koa eta % 84,4koa, hurrenez hurren.

Enpresa-aktiboen osaera sektoreka banatuz gero ere aldeak eman ziren; eraikuntza sektoreko aktibo arrunta aktibo guztiaren % 73,8 izan zen, industri sektorean aktibo hau % 40,1 izan zen eta merkatuko zerbitzuen sektorean % 39,3.

Balantzeen analisia egitean beste datu hauek atera dira: **laneko kapitala** (aktibo arruntaren eta pasibo arruntaren arteko aldea) positiboa izan zen, 28.451 milioi eurokoa. Beraz, epe laburrerako zorrak (epe luzera eskatzeko modukoak) unean unean kitatzeko baliabide nahiko sortu ziren. Enpresa-sektoreen arabera balantzeetan eman ziren egitura ezberdinak kontuan izanda, eraikuntza sektoreko enpresen laneko

kapitala aktiboaren % 34,6 izan zen, industri sektoreko enpresena % 10,5 eta merkatuko zerbitzuen sektorean dauden enpresena % 10,1.

Oinarritzko errentagarritasun finantzarioak enpresa batek egiten duen jardunaren bidez lortutako batez besteko irabaziari buruzko informazioa ematen du, betiere haren ondare garbia eta pasibo ez-arrunta aintzat hartuta. Bada, % 3,2koa izan zen. Eraikuntza sektorean ratio hori % 1,7 izan zen eta merkatuko zerbitzuen sektorean % 4,1. Industri sektorean ratioa % 2,7 izan zen.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel.: +34-945-01 75 13 Faxe: +34-945-01 75 01

[Enpresa Ez-finantzarioen Ondare-kontuari \(EEFOK\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Enpresa Ez-finantzarioen Ondare-kontuaren datu-bankua](#)